



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

591. zkia.

XIV. urtea

2006ko azaroaren 10a



Mendaroko Eguneko Zentroa

Zahartzaroan berriro *hautzaindegira?*

Olaia

estetika

- Garbiketak
- Makilajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma (horizontala eta bertikala)
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak

Lehenengo
saioan
aurpegi-tratamendu
personalizatu
oparituko
dizugu!

Alquidepil

www.alquidepil.com

Diodo LightSheer
laser bidezko
depilazio iraunkorra

San Inazio, 4 behea - ELGOIBAR

Tel.: 943 74 27 25



Eraman ezazu zure koltxoa azken modara jantzita!

zahir



dibono



zira



samaná



OPARIA Zahir, Zira, Dibono edo Samara koltxoa erosteagatik nordiko edo maindire eder batzuk oparituko dizkizugu. (Erosten duzun koltxoiaren neurrikoak.)

Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



AMAIA GORROTXATEGI

Bele!!

Zer moduz metropolian?? Ni ondo. Oso ondo. Mundu txiki honetan bizitza ezberdin mordo daudela diostan pentsamenduarekin gosaltzen dut egunero. Beti nire parean esertzen da. Nazka aurpegiz begiratzen du nire "nesquik"-a eta nik ere antzera begiratzen dut bere tea. Daniel ez doa etxera gabonetan. Ez du 6 urtetan zehar bere etxeko zorua zapaldu. Orain zergatik joan beharko lukeen galdetu dit. Nik nire esneari pare bat buelta eman dizkiot.

Mundu txiki honetan bizitza mordo daudela diostan pentsamenduarekin bazkaltzen dut egunero. Nire ondoan esertzen dira. Martinek ogi xigortua gurin eta azukrearekin jaten du bazkaltzen eta Verenak yogurta atunarekin. Ez dute inoiz dilistarik probatu.

Pentsakizun horrekin hitz egiten dut ia denbora guztian. Nadjak frantsesez hitz egiten du bere unibertsitateko lagunekin, alemanieraz bere herriko lagunekin eta ingelesez bere gurasoekin, Eugenyk eskuan muin ematen dit ikusten nauden bakoitzean (bere herrian - Angola- dama bat errespetu eta maitasunez tratatu behar omen da beti. Very polite.), Jochen-ek *Golden Apple Quartet* bezela kantatzen du sukaldean eta harrerako gizonak nire izena munduko luzeena al den galdetu dit gaur goizean.

Beste mundu batean bizitzea bezala da. Mundu guztiak nahasten diren mundu batean.

ZOZOAK BELEARI...



AINHOA MENDIBIL

Zozo...

Sarek barre egiten du gelditu gabe, gustatu egiten zaio antza, eta guri ere gustatzen zaigu. Iraitzek ordea, Sare eta niri egiten digu barre askotan, gutaz egingo balu bezala. Bitartean Gotzonek musikaz arintzen du momentua, "arintzen" du, (ahotsa apurtzerainoko garrasiek zer bait arindu balezakete), Gurrulogelan egongo da zintzo, besteok behar genukeen bezala, apunteak garbira pasatzen. Gotzon eta Iraitzekin gosaltzen dut, antzerakoa gosaltzen dugu; ez da aukera askorik egoten eta, baina bakoitzak bere modura. Bazkaltzen, afaltzen... bada bat okelarekin amets erotikoak izatera iritsi dena, eta igartzen da! Solomoa, oilaskoa, saiheskia... harakina aberastu dugu onez gero!

Eta gero etortzen dira komeriak, batek Dragoi Bola nahi duenean, eta besteak Anatomia de Grey eta Supermodeloak pasarelatik irteten direnean gure etxera sartzeko, eta artean Cuarto Mileniokoek ez dakitenean gorputz eskeletiko esklabistak mundu paranormalean kokatu edo ez. Ohera sartu eta batek irakurtzeari ekingo dio, besteak musika aparatuari eskatuko dio ekiteko, eta 'Anestesia' izango da oheratzeko anestesiarik onena. Eta hurrengo goizean denok egunon esango diogu elkarri, euskaraz dakigulako denok, bailarakoak garela denok... mundu honetakoak, ezta?

Baina ziurtatzen dizut eta hala da, bakoitza mundu bat gara. Eta ze ondo!

«Mundu txiki honetan bizitza ezberdin mordo daude»

AMAIA

«Bakoitza mundu bat gara»

AINHOA

MERITU HANDI BAT DU GIZARTEAK!
BAKARDADEA ESTIMATZERA ERAMAN GAITUELA

Charles Chincholles

Elgoibarko arazoa

Ondo bizi omen gara elgoibartarrok. Pasa den astean kaleratutako gutun batean horixe baieztatzen zen, gure arazoei erreparatuta behinik behin.

Arazoen larritasuna neurtzerakoan zaila izaten da guztiok sentsibilitate bera izatea gai bakoitzarekin, bati xeblea edo berezia iruditzen zaiona bestearen eguneroko ogia izan daiteke-eta. Gutunak zer pentsatua eman dit ordea, eta uste dut gauza bat behintzat agerian uzten duela, elgoibartarrok gure herriko gaien aurrean ardura edo interesa behintzat badaukagula.

Herritarrok herriko gaietaz buruz hitz egitea, eztabaidatzea eta ekarpenak egitea benetan garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zait eta uste dut benetako arazoa edo defizita arlo honetan ematen dela gure herrian. Udaletik ez da bideratzen ez informaziorik ez herritarren partehartzerik, eta askotan herritarren hitza ixilarazi egin izan da (merkadilloa herri barruan eskatzen zuten 3.400 herritarren hitza adibidez). Bakarrik honela uler daiteke itxuraz konponbide erreza duten gaiak arazo larri bilakatzea. Demokrazia lau urtean behin alderdi bati edo besteari bozka ematea dela sinestarazi nahi diguten aro honetan, herritarrok asko du-

gu esateko. Gure ikuspuntuak eta ekarpenak bideratzeko bitartekoak behar ditugu eta herritar guztiak animatu nahi nituzke herriko gaien aurrean aktiboki parte hartzera, soilik honela lortuko baitugu elgoibartarrok neurriko Elgoibar.

IÑAKI BENGOETXEA

Independentzia eta sozialismoaren bidean... segi borrokan, segi antolakuntzan!

Jarrai-Haika-Segi auziaren barruan datorren azaroaren 16an Espainiako Auzitegi Gorenean egingo den bistan, Auzitegi Nazionalak ezarritako sententziaren aurka aurkeztutako helegiteak aztertuko dira. Helegite horiek AVTk, fiskaltzak eta defentsak aurkeztutakoak dira. Ondoren, epaiketako azken epaia emango dute.

Jarrai-Haika-Segi antolakundearen aurkako auzian 32 gazte epaitu zituzten 2005eko otsailean, martxoan eta apirilean egin zuten makroepaiketari. Fiskaltzaren 10 urteko eskaera alboratu eta bi urte eta sei hilabete arteko epaia erabaki zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak. Egun horretan bertan, preso jarraitzen zuten 14 gazteetatik hamabik askatasuna berreskuratu zuten, gaur egun 32 gazteak daude kalean. Auzi honek erakunde

oso bat eta Euskal Herrian milaka gazte babesten duten proiektu politiko bat epaitzen ditu eta inolako zilegitasunik ez duen auzia da. Ezker abertzalea ilegalizatzeko helburuz, Estatu espainolak abiatutako estrategiaren porrota da, herriak mobilizazioen bidez eraman du estrategia hau porrotera.

Segi errealitate ukaezina da, epaiek eta sententzia guztien gainetik Euskal Herriarekin konpromisoak dituen gazte antolakunde nazionala da eta herriz-herriz eta auzoz-auzo independentziaren eta sozialismoaren alde lanean jarraituko dugu. Euskal Herrian milaka gazte babesten duten proiektu politikoa epaitu nahi dute eta horren aurrean gazterik erantzun beharra dauka, mobilizazioen bidez beraien estrategia berriz ere porrotera eramango dugulako. Horregatik dei egiten dizuegu gaur, 19:00etan Bilboko PSOEn egoitza aurrean egingo den kontzentrazioa eta baita, datorren hilean egingo diren mobilizazioetara.

Ostirala 10, 19:00etan Gazteria Bilbora! Gazteria PSOeko egoitzaren pareira. Segi borrokan, segi antolakuntzan!

ELGOIBARKO SEGI

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko erretratu zaharrea argazkiko hiru apaizak fusilatu zituztela jarri genuen. Esan digutenez, Elgoibarren apaiz egon zen Don Celestino bakarrik izan zen fusilatua.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[**b**]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR

943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maialen Olazabal, Jaxone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.590 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **Jendeak ez du ezer errespetatzen:** "Azken egunotan herriko homa eta lurrak pintadaz beteta aurkitu ditugu. Pintada politikoak eta bestelakoak. Gauzak aldarrikatzeko beste modu bat aurkitu behar da, izan ere, modu honetan herria asko zatartzen baita. Gainera, pintada horiek garbitzea ez da lan erraza, eta azken finean, herritar guztiak poltsikotik ordaintzen da lan hori ere. Zaindu dezagun apur bat gure herria".



• **Honela aurkitu zituzten lorontziak Errotaberriko bizilagunek igande goizean:** "Honela dibertitzen dira gaur egungo gazteak. Kanpotik gure herrira etortzen dira, edatera, juerga egitera eta ondo pasatzera. Ez dugu ulertzen zergatik puskatu behar dituzten herriko apaingariak. Udaltzainak gauza hauek guztiak zaindu beharko litzukete, ez baita honelakoak gertatzen diren lehenengo aldia".



TXALOAK

• **Udaletxe azpiko arku berria oso polita gelditu da:** "Txalo bero bat eman nahi diogu Udalarari. Oraingoan benetan asmatu du, eta gure ustez, udaletxe azpiko arku berria irekitzea ideia bikaina izan da. Oso polita gelditu da. Plaza Handitik Santa Ana kalerantz pasatzen garenean, beste aldea ikustea polita da benetan. Gainera, Giza Eskubideen parkeko obrak bukatzen direnean, are ederragoa geldituko da ingurunea. Polita izateaz aparte, eroso ere bada, lehen buelta handiagoa eman behar izaten baitzen Plazatik beste aldera joateko".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKAL JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileko zuzendaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia





Luma

Euskadi 2050

Ikusi al duzu EUSKADI 2050 "dokumentala"? Ez al zaizu publierreportai luze luzea dela iruditu? Hain azkar mugitzeko, bizitzeko gogorik al daukazu? Denboraren eta asfaltuaren esklabu bihurtzen ari garelakoan nago. Zer deritzozu?

Orain, besteak beste Abiadura Handiko Trenaren obrak hasi dira. Haren arduradunek diote, etorkizunerako ezinbestekoa dela AHTa. AHT horrek, 11 etxe, arbola, baso, mendi, kobazulo, animali eta landare suntsituko ditu. Toki askotan, lurra pitzatuko du. Geure Euskal Herri maitea, mendiak, basoak, gehiago suntsituko ditu.

Mugikortasun azkarra nahi duenak ere, AHTrik gabe, lortzerik badu! Beste irtenbide batzuk, egon badaude!!! Naturan txikizio gehiago nahi al duzu? Ez al dugu nahikoa txikitu?

Italiako herriak, AHTko obrak geldiarazi ditu kalera irteten. Mendi, herri, hirietan mobilizatu eta antolatu dira italiarrak. Haur, gazte, heldu eta aittitta amamak AHTaren aurka protesta egin dute urtetan zehar. Hainbat alkate ere, Amaluraren alde agertu dira lanak gelditzea lortu dutenerarte. Euskal Herritarrok, geure mendiak nola txikitzen dituzten ikusterik nahi al dugu?

Amaia Urzelai

[ZORTZIKO TXIKIAN]



JUAN LUIS ASTIGARRAGA

ASTIGARRAGA KIROL DENDAKOA

Kirol gogoko bat?

Txirindularitza eta mendian ibiltzea.

Hotzetik babesteko arropa bat?

Soft shell-izeneko elastikoa. Hotzetik nahiz hezetasunetik babesten du eta barneko tenperatura mantentzen du. Gainera, oso arina da.

Kirol munduan zerbait berritzailea?

Ehun eta mintzak.

Zertan jartzen dute arreta bezeroek kirol arropak erosterako garaian?

Diseinuan, erosotasunean, markan eta prezioan.

Marka hitzak zer adierazten du zuretzako?

Erreferentzia bat da, kalitate eta bermearen sinonimo.

Neguan estimazioa duen produktu bat?

Barrengo elastiko temikoak. Jantzki lodiek geroz eta estimazio urriagoa dute. Kirol oinetakoetan, bestalde, trekking motako zapatilak.

Zeri erreparatu behar diogu kirol oinetakoak erostean?


Amortiguazio onekoak, transpiragarriak eta arinak izatea.

Zer nolako koloreak nagusituko dira negu honetan?

Kolore gris eta beltzak mantenduko dira. Berezien artean, berde biziak eta naranjak.

komikia

Hil da gero...



Kokoe 077

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO


1923an jaioa

«Mendi-itzulixa»

Kontatuko dizuet oin dala 65 urte edo zeozer gehixago gertautakua.

Neska-mutil talde batek mendira juatia pentsatu genduan, Pol-Polera. Zer jateko eruan ere pentsatu genduan: paella han egiteko, frituak eta tortilla patatarekin. Frituak egitia tokau zitzaionak, mutilla zan, lagun bati galdetu zion: zenbat fritu jango zendukez? "20 edo gehixago", erantzun zion. Txundituta geratu zan; pentsa'izu, 15 edo 16 lagun giñan!

Juan giñan mendirutz asto eta guzti, Maritxu Sodupek (Agarrekoa, Gelatxo) lagatakua. Tramankulu guztixak asto gaiñian ipiñi genduzen; baita soiñua eta txistua ere. Baiña politta pasau jakun! Bazkarixa prestatzen gazozela, Bergarako neska talde bat azal-



du zan, eta han hasi ziran gure mutillak harekin dantzan! Haura zan muturretan ematia!

Bueltan gatozela, asto eta guzti, ur potzu batzuk topatu genduzen. Astuak bere burua uretan ikusi zabanian, saltoka eta korrika hasi zan. Sekulako soiñu eta ontzi zarafia atera genduan. Baiña bueno, ondo iritsi giñan bakoitza bere lekura.

[GURE BERBAK]

Kontzesiozko esaldixak (3)

Gaurkuan, kontzesiozko esaldi berezi bat ekarriko dogu hona: **BAINA** enklitikua. Batez ere mendebaldeko egitturia da, Gipuzkeraren eremuan ere erabiltzen bada ere. Berez, ordena-aldaketa batek sortua da egittura hau:

1. Gaixorik nago, baiña mendira nixe.
2. Gaixorik nago baiña, mendira nixe.
3. Mendira nixe, gaixorik nago baiña.

Hona gure jarduneko adibide batzuk:

- Hamaika urte daukaz, eztaue ematen baiña.
- Gaur ere baten batzuk egongo dira, eztauekit zein dagozen baiña.
- Eta kinto mordua dituk egon giñanak, oin bajauta gauaz baiña.
- Han tiraka ibiltzia izeten zuan ona, pixkat azkenerako nekatzen zuan baiña.
- Ze esango juat ba nik, esajerau ezingo juat egin baiña, gaurko hamar milla pezeta bai.
- Eurok ere zauken eztauekit nik, astillero antzerako taller mekaniko bat, barkuak eta reparatzeko, entzuna, eh?, ni enitzan allegau bertara baiña.

Jesus Mari Makazaga

BARREN astekaria eta ELGOIBARREN.NET atari digitala zuzentzeko

ARDURADUNA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Lantalde bat zuzentzeko gaitasuna
- Euskara maila ona.

Baloratuko da:

- Sektorean eskarmentua

Eskaintzen da:

- Urtebeterako lan-kontratua (luzatzeko aukerarekin)

Curriculumak jasotzeko azken eguna: azaroak 20.

E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)

MENDAROKO EGUNEKO ZENTROA

HIRUGARREN ADINEKOAK ZAINTZeko LEKUA

Mendaroko eguneko zentroak pasa den urriaren 16an ireki zituen bere ateak. Azpilgoetako auzoan aurkitzen da eta hamabost laguntzako lekua du. Oraingoz, adineko lau emakume dira zerbitzu honen erabiltzaileak, baina, azaroan, beste hiru pertsona nagusiren etorrera espero dute. Beraien zaintzaileak Nuria Ansuategi, zentroko koordinatzailea eta Maria Luisa Fernandez, terapeuta ditugu. Bi emakume hauekin izan gara solasean.

Gaur egun, adineko pertsonen binzianlegoaren zati handi bat osatzen dute eta aurreikuspen guztien arabera, joera hori izango da gure gizartean jaun eta jabe, datozen urteetan ere. Honen harira, Mendaroko eguneko zentroa, egoera horrek bideraturiko eskaera asetzerat dator, hein batean. Nolabaiteko menpekotasuna duten 65 urtetik gorako adineko pertsonen zuzendua dago eta printzipioz, Deba Beheko herritarrentzako da. Orduetgia berriz, astelehentetik ostiralera, goizeko 9:30etatik, 17:30etara bitartekoa da.

Maria Luisaren arabera, "erdibideko aukera bat eskaintzen du zentro honek, ez baita ohiko egoitza bat". Baliabide honi esker, etxean etxekoekin bizi izanik, eguneko ordu batzuetan, zentroak bere ardurapean hartzen ditu, oinarizko beharrak, behar terapeutikoak eta soziokulturak dituzten pertsona nagusiak. Modu berean, "norbanako hauen senitartekoei, ere, ateak zabalik dituzte, nahi dutenean edo ahal dutenean, bisita egitera joan daitezten". Horretarako ez dago ordutegi finkorik, ezta, zehazturiko bisita denborarik

ere, hori bai, ahal dela, bazkal osteko loku-luxka errespetatzea eskatzen diete senitartekoei.

Maria Luisak azaldu digunez, eguneko zentroaren helburuetako bat, adineko pertsonak gustura sentitzea da eta ez aspertzeta. Nuriaren adierazpenetan, "zentrorat datozen nagusien ahalmen edo gaitasun fisiko eta psikikoek bere horretan eutsi eta indarberitzea da gure xedea". Ez hori bakarrik, aurrera begira, eta pixkanaka elkar ezagutzen dihoazen heinean, berrietako bakoitzarentzat helburu pertsonalizatuagoak





ezarriko dituztela jakinarazi digute.

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

Zentroan, erabiltzaileei, hamarretakoa, bazkaria eta askaria ematen zaizkie. Gisa berean, norberaren garbidurarako laguntza ere eskaintzen diete Nuria eta Maria Luisak egoitzako bizilagunei: bainuak, dutxak...

Eguneroko jarduerak hizpide hartuz, honela antolatzen dute eguna. Goizean, zentrori iristearekin batera, egutegiko data aldatu eta gero, egunkaria ozen irakurtzen dute eta ondoren, albisteak komentatzen dituzte. 11:00etan mezatara jotzen dira parez pare duten elizara. Egunaren arabera, batzutan, jokuen bidez oroimena lantzen dute; beste batzuetan, aldi, eskulanak egiten dituzte. Maria Luisaren hitzetan, "liburu ludikoetako ariketak erabiltzen ditugu oroimena lantzeko". Eskulanei dagokionez, orain egutegi bat egiten dihardugu". Arratsaldetan, berriz, lokuluxka egin ostean, gorputzeko hainbat atalen mugimendua lantzen dute, batik batik, esku, beso eta hanketakoa. Horretarako, zenbait tresna dituzte eskura; hanketarako pedalak eta eskuetako hatzamarren higikortasuna trebatzeko psikomotritate tresnak, besteak beste. Aipaturiko zerbitzu eta jardueraz gain, eskaintza anitza da: erlaxazioa, estimulazio taldea, musika,

laguntza psikoafektiboko taldea, ileapainketa, podologia eta fisioterapia zerbitzua, harremanak osasun arloarekin... Era berean, aipatu, etxetik zentrorako eta itzulerako garraio zerbitzua ere eskaintzen dutela, gurutze gorrako furgonetaren bidez.

NORA JO ESKAERA EGITEKO

Zentro honetara etorri nahi duenak,

Mendaroko udaletxean aurkeztu behar du eskaria. Hemendik, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzen dute eta Aldundiak eskaeraren balorazio bat egiten du zenbait irizpide kontuan harturik. Horietako bat jasotzen duten pentsioa litzateke.

Bukatzeko esan, zentroko arduradunek, jendeari etor daitezten animatzeko deia luzatzen diela, plaza ugari baitaude

INSTALAZIOAK

Mendaroko eguneko zentroaren eraikinak 300 metro karratuko gainazala du. Instalazioak honakoak dira: sukalde, egongela (bere armairu, telebista, bideo, irrati, jangela eta sofa etzangarriak); bi komun eta dutxa egokitu; tutoretzapeko hiru apartamendu, bulegoa eta parkea. Tutoretzapeko bizitegien inguruan, adierazi, sukalde eta egongela bat egiten direla eta logelak, orga altzatzailez osaturiko bi ohe artikulatuz eratuak daudela. Horrez gain, sukaldeko sua indukzio motakoa da, arriskua txikiagoa izan dadin; dutxa eta komunak ere egokituak daude eta azkenik, parkearekin ematen duen terraza txiki bat.



Nuriaren hitzetan, "apartamenduetan bizitzen jartzen direnek, nahi izanez gero, gure zainketak izango litzateke; baina, bizilagun hauek, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, bakarrik geratzeko ahalmena duten pertsonak izan beharoko lirateke, hots, nolabait autonomoak".

[PROTAGONISTA]



Aritza **Monasterio**

Aritza Monasterio mendigoizale elgoibartarrak bide berri bat ireki du Peruko Huayhuash mendikatean dagoen Rondoy (5.879m) mendian, Mikel Saez de Urabain mendizale euskaldunarekin batera. "Bagabiltza" izena jarri diote Rondoy mendia- ren mendebaldeko aurpegian ireki duten 900 metroko bide berriari. Urteak daramatza Aritza Monasteriok Peruko Huaraz herrian bizitzen. Mendikate Zuria eta Huayhuash mendikateak oso ondo ezagutzen ditu, berak egiten duen mendi gidari lana dela-eta makina bat zeharkaldi egin baititu ingurune honetan.

[NOTIZIA]

5 milioi euro inbertituko ditu Udalak Ubitarte ingurua San Rokerekin lotzeko

Ubitarte-Buruko Babes Ofizialeko Etxebizitzekin batera, Udalak Ubitarte ingurua San Roke eta Erretxindi auzoekin lotzeko proiektua jarri du martxan. Lanean ari dira dagoeneko, eta lehenengo pausoa trenbide azpitik San Roke auzorako bidea egitea izango da. Bide hau Ubitartetik Juan Mugerza eta BH Institutu artean dagoen bideraino iritsiko da. Era berean, Erretxindi auzorako lotura egitea ere, aurrakusten da proiektu honetan. Trenbide azpiko bidea egin ostean, eskailera mekanikoak jarriko dituzte, Erretxindi auzorako bidea errazteko.



Lau eraikuntza eta berdeguneak

Ubitarte Buruko 99 Babes Ofizialeko Etxebizitzak lau eraikuntzatan banatuko

dira. Eraikuntza hauen azpian garajeak egingo dira. Honekin batera, parke eta berdeguneak jarriko dira. Proiektu honen aurrekontua 5.344.368 eurokoa da.

[ZENBAKIA]

88,74

Etxebizitza bat duten elgoibartarrek 88,74 euro ordainduko dute zabor bilketa zerbitzua 2007an. Oso-ko Bilkurak zabor tasa %20an garestitzea onartu zuen. Azken hiru urteotan %41,73an garestitu da, eta azken bi urteetako gorakadak, oso altuak izan dira aurrekoekin konparatuta, 2004an %4,3 igo baitzen.

asteko [ARGAZKIA]



Kanping dendaz beteta esnatu zen Plaza Handia zapatu goizean. Fernando Bert presoari elkar-tasuna adierazteko baraualdi-akanpada egin zuten herriko zenbait lagunek barixakutik zapaturako gauean. Frantziako Gobernuak aste honetan utzi behar zuen Bert Espainiako mugan, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak euroagindu bat eskatu dio Frantziako justiziarri. Datorren martitzenean epaituko dute Bert Tou-loussen. Euroagindua onartzen bada, aldi baterako estraditatu-ko dute Bert Espainiara.

Enpresentzako euskara planen



Debabarreneko eskualdeko enpresan euskara sustatzeko Ardatza proiektuaren baitan, "Ateak zabalik" ekitaldia izan zen asteartean Danobat enpresan. Proiektuan parte hartzen ari diren enpresa eta erakundeei euskara plan bat bertatik-bertara ikusteko aukera eskaintzea zen helburu nagusia, eta bide batez, industria eta lan munduan euskararen normalizaziorako planak bultzatzea. Jarraipen Batzordeko kideak, eskualdeko udaltako ordezkariak eta euskara planetan lan egingo duten teknikariak bildu ziren ekitaldian.

Bi zati desberdin

Ekitaldia bi zatitan banatu zen. Hasteko, Junkal Txurruka Eibarko Udaleko euskara teknikariak Ardatza proiektuaren aurkezpen labur bat egin zuen, apur bat euskara planen nondik norakoak azalduz. Honen ostean, Danobat enpresako euskara planaren ezaugarri nagusiak azaldu zituzten lantegiko teknikariek. Ekitaldiaren bigarren zatian enpresa bisitatu eta euskara planaren eraginak zuzenean ikusteko aukera eskaini zieten ekitaldira joan zirenei; hau da, enpresako alor desberdinetan euskara nola sartu duten erakutsi zieten.

[MOTZ-MOTZIAN]

Gaixo eta ezinduen elkarkidetza

San Bartolome Parrokiako Osasun Pastoralak antolatuta, Elgoibar, Azpeitia, Azkoiti, Zumaia, Zarautz, Orio, Getaria, eta Zestoako gaixo eta ezinduak elkartuko dira domekan, azaroaren 12an, gure herrian. Gaixo, senide eta laguntzaileen artean, 100 lagun inguru bilduko dira. Eguerdiko 12:00etan meza izango dute Parrokiaren, eta ondoren bazkaria egingo dute Sigma jatetxean. Informazio gehiago 943 741519/687077024 (Carmen Ferrer) edo 943744173 (M^o tere Pedrosa) telefonoetan.

Kimetz elkartearen miaketaren kontrako salaketa

Espainiako Auzitegi Gorenaren aginduz, joan zen urriaren 27an Ertzainak sartu ziren Kimetz Elkartearen bertako edukien inbentarioa egitera. Kimetz Elkartea pribatua da, eta handik esan digutenez, "eraso hau larritzat jo daiteke, edozeinen etxera bortizkeriaz sartzea modukoa baita". Ekintza hau salatzeke kontzentrazioa egin zuten joan zen zapatuan, Plaza Handian.



Enpresa berriak sortzeko ikastaroa

Bizkaiko Azaro Fundazioak enpresa berriak sortzeko ikastaroa antolatu du INEMen laguntzarekin. Programa honetan parte hartzeko interesa dutenek 94 616 91 72 telefonora deitu dezakete. Izena emateko epea azaroaren 15ean bukatuko da.

Euskal Herriko autodeterminazioaren aldeko kanpaina



Enbioko kideak martitzeneko prentsaurrekoan.

Einbioko kideek "Euskal Herriko autodeterminazioa" kanpainen berri eman zuten martitzenean. Nazio Mailako kanpaina da, baina herri mailan ere, zenbait ekitaldi antolatu dira. Hasteko, bihar Bilbon egingo den manifestazioa joateko autobusa jarri dute, Plaza Handitik aterako da 15:45ean. Azaroaren 18an, Autodeterminazioaren Aldeko Egunean, 3 ekitaldi egingo dira Plaza Handian. Goizeko 9:00etan "autodeterminazioa" hitza jartzen duen mural bat egingo dute, 12:30ean komunikatu bat irakurriko dute, eta ondoren, "Nazioa" hitza osatuko dute herri-tarekin, argazkia ateratzeko.

GUMERSINDO VILA GALIZA KULTUR ETXEKO PRESIDENTEA

«400 kilo gaztaina eta 300 litro ardo banatuko ditugu Magosto Egunean»



Azken urteotan bezala, Magosto Eguna antolatu du Galiza Kultur Etxeak. Goizean goiz hasiko dira bihar lanean, eta eguerdiko 12:00etatik aurrera, gaztainak eta Albariño ardoa banatuko dituzte. Gumsindo Vila Magosto Eguna ospatzearen arrazoia azaldu digu.

► Nondik dator Magosto Eguna ospatzeko ohitura?

Euskal Herriko zenbait herritan Gaztainerre Eguna ospatzen den bezala, Galizian Magosto Eguna ospatzen dugu. San Martin Egunaren bueltan antolatzen da, gaztaina indartsu dagoen garaian, alegia. Magosto hitzak ez dauka itzulpenik, baina gaztainarekin lotzen da.

► Garrantzia berezia al dauka gaztainak Galizian?

Bai. Gaztaina tradizio eta garrantzia handiko elikagaia izan da Galizian, eta seguruenik hemen ere izango zen. Gerra ondorengo urteetan familia askoren jana zen. Gose garaian, asko jaten zen gaztaina, baina erreta baino gehiago, esnetan egosita. Alimento handia dauka eta asko betetzen du. Garbantzoak edo babak jatea modukoa zen. Niri ez zitzaidan gustatzen, baina gaur egun, jende asko ezagutzen dut gaztainak erreta baino egosita nahiago dituen.

► Gaztaina asko al dago Galizian?

Bai. Duela 40 urte inguru, gaztainondo asko kendu ziren pinuak eta eukaliptoak landatzeko, baina berriro hasi dira bertako zuhaitzak landatzen. 100 urtetik gorako gaztainondoak ikustea oso ohikoa da.

► Udan izandako suteak kalte handiak eragingo zituen, ezta?

Bai, dudarik gabe, baina Galiziako lurra oso aberatsa da eta berehala ber-

pizten da. Suteak urtero izaten ditugu. Aurten telebistan asko atera denez, badirudi aurtengo kontua bakarrik dela. Pare bat urtetan ez da ezer igarriko. Hezetasun handiko lurra da eta horrek asko laguntzen du.

► Zenbat urte daramazue Elgoibaren Magosto Eguna antolatzen?

Duela 20 urte inguru hasi ginen egun hau antolatzen. Hasiera batean Galiza Etxean egiten genuen. Elkarteko bazkideak, auzotarrak eta herriko lagun gutxi batzuk gerturaten ziren. 2003an kalera jaitea erabaki genuen, eta oso gustura gaudela. Nafarroa Plazan jartzen dugu txosna eta jende mordo gerturatzen da.

► Zenbat kilo gaztaina ekarri dituzue aurten?

400 kilo gaztaina eta 300 litro ardo. Gaztainak doan banatzen ditugu, baina ardoa edateko lurrezko ontzia erosi behar da. Euro 1 ordainduz, nahi beste edan daiteke.

► Zaila al da gaztaina errete egitea?

Ez da erraza, baina gure artean baditugu gaztainak erretzen adituak diren batzuk. Sua ondo egin eta gutxinaka botatzea da trukoa. Hasiera batean ikatza erabiltzen genuen, baina orain egurrarekin egiten dugu sua. Goizeko 9:00etatik hasiko gara gaztainak erretzen, jendea etortzerako, erdia gutxienez erreta eduki behar dugu. Kartoizko kaxetan egunkariz estalita epel mantentzen dira.

«Elikagai oso garrantzitsua izan zen gaztaina gose garaian»

EUSKAL KANTAGINTZAREN EGITARAUUA

“Mundurako ateak” diskoa aurkeztuko du Arima Beltzak Herriko Antzokian



Euskal kantagintzaren egitarauaren-baitan, Arima Beltza musika taldeak “Mundurako ateak” izeneko diskoa aurkeztuko du azaroaren 17an, Herriko Antzokian, gaueko 22:15etatik aurrera.

Aurreko lanetan bezala, oraingoan ere, rock musikarako joera agerian geratuko da beren doinueta; bluesaren sustraiak mantenduz. Musika indartsua da disko berr honetako protagonista. Hala ere, abesti intimista eta lasaiagoak entzuteko aukera ere izango da. Musika ibilbide oparoa joratu du taldeak, bere estreineko lana, 2.000. urtean kaleratu zutenetik. Sei abestiz osaturiko eta diskoari taldearen izen bera eman zion lanaz mintzo gara; Arima Beltza diskoaz, alegia. Lan honekin, Larry McCray, Tonky Blues edo Los Reyes del KO

musika taldeekin aritzeko aukera izan zuten. Bi urte beranduago, bigarren diskoak argia ikusi zuen. Oraingoan, 10 abesti berr, “Blues Sustraiak” diskoan bildu zituzten. Horrez gain, denbora guzti honetan, euskal herriko hainbat jazz eta blues jaialditan parte hartzeko parada ere izan dute. Hala nola, Elorrioko Blues&Jazz jaialdian edo Getxoko Jazz jaialdian. Modu berean, hainbat kontzertu eskaini dituzte makina bat lekutan: antzoki, gaztetxe nahiz tabernatan. Ostiraleko saiorako sarrerak, aurrez eros daitezke, 5 euroren truke: Euskara Sailak Kultur Etxean duen bulegora joz, goizeko 7:30etatik 15:00etara edo Gazte Informazio gunean, astearte, asteazken, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

“El Caserio”zarzuela gaur Herriko Antzokian

Kantuaren zaleek eta zarzularen jarratzaileek, gaur Herriko Antzokian eta 22:00etatik aurrera, Jesus Guridiren obra aski ezagunaz gozatzeko aukera izango dute. Interpretateak Bilboko Ensanche Masa Abesbatzako partaideak izango dira. Guztira, hamalau abeslari arituko dira taula gainean eta kontzertua hiru zatitan banatua egongo da. 1903. urtean sorturiko abesbatza honek sona handia bereganatu du bere musika ibilbide osoan zehar.

Gainera, gogorazi, “El Caserio” obra, ez dela estreinekoz antzezten Elgoibarren. Izan ere, 1958. urtean, hainbat elgoibartarrek, zarzuela ezaugarri hau, orduko Odeon zine antzokian taularatu zuten. Zarzuela honen trama, Arrigorri bailarako zenbait auzotarren interes eta maitasun kontuk osatzen dute. Ikusmin handia sortu du kontzertu honek herritarrengan. Horren adierazgarri, Kultur Etxean egun hauetan eman den sarreren aurre salmenta, ezinhobeto joan da.



16 euskaldun berri eta 7 euskaldun aurtengo Tertulia saioetan

Azken urteetako ohiturari jarraituz, eta Elgoibarko Izarraren egitarauaren baitan, dagoeneko abian da “Tertuliak” ekimena. Egitasmo honen bidez, euskaldun berriei eta euskara ikasten dihardutenei lagundu nahi zaie euskararen ikaste prozesuan. Funtsean, euskaraz hitz egiteko eta ikasitakoa praktikan jartzeko modu ezinhobea da. Ilkasturte honetarako, 16 euskaldun berri eman du-

te izena eta hauekin batera, beste 7 euskaldun animatu dira, tertulia hauetan parte hartzera. Guztira, 7 talde osatu dira eta talde bakoitzean, bizpahiru euskaldun berri eta euskaldun zahar bat daude. Aste honetatik aurrera, tertuliak ekainerarte luzatuko dira. Solasaldiak astean behin izango dira eta normalean herriko tabernaren bat izaten da horretarako hautatzen duten txokoa.

Iban Zubiaurre auzian izandako jarrera itxia leporatuz, Athletic-ek Realarekin zituen harremanak hautsi ditu.

Ikusten al diozu amaierarik Iban Zubiaurre auziari?

KRISTINA ODRIOZOLA
Ikaslea
14 urte



“Ez dakit, futbola ez zait gehiegi gustatzen, eta ez dut asko jarraitu Iban Zubiaurre auzia. Dena dela, espero dut laster bukatzea. Athletic-en jokatu beharko luke.”

ALES SARRIONAINDIA
Komertziala
28 urte



“Bai. Laster hasiko da Bilbon entrenatzen, baina oraindik ez du jokatu. Realak bere interesak defendatu ditu. Zaletuen aurrean antzerkia egiten ari dira bi taldeak.”

JULEN ETXEBERRIA
Ikaslea
13 urte



“Bai, bukatuko da, baina Zubiaurrek gehiago ordaindu beharko dio Realari. Hala ere, ez dira harremanak berreskuratuko. Hoberena denok ondo konpontzea da.”

AMAIA LAVADO
Normalizazio teknikaria
30 urte



“Ez dakit. Dirua sartu da jokoan eta inork ez du amore eman nahi. Egoera zikindu egin da. Euskal futbolearen honelakoak gertatzea, nahiko tristea iruditzen zait.”

[BAI ala EZ?]

Lotinak aterako al du Realak zuloak?

BAI %78

“Bai. Badaukat fedea Lotinarengan eta taldean. Pazientzia behar da. Konfiantza eman eta lan egiten laga behar diogu Lotinari. Eta etorriko dira fruituak... seguru!”

EZ %22

“Ez. Aurtengo denboraldian Aita Santuak ere ez du Realak zuloak aterako. Joko txarra erakusten du astero, eta hori ez da entrenatzailearen errua. Bigarren mailarako bidean ikusten dut.”

Datorren asterako.... **Saddam Hussein heriotza zigorra ezarri diote Ameriketako Estatu Batuetan. Heriotza zigorraren aldekoa al zara?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 ¢ + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozelai.com

Elgoibarko orainkaria izateko espirituarekin

Elgoibarko orainkaria izatea da proiektu honen helburu nagusia. BARREN astekaria astean behin irteten bada argitara, elgoi barren.net egunero-egunero egongo da Elgoibarko berriak mundura zabaltzen. Gertatzen den momentuan, Internet bidez, euskaraz. Baina proiektu honen nahia ez da informa-

zioa ematea bakarrik; herritarren iritziak eta komentarioak jaso ere egin nahi ditu. Irakurleek notiziak osatzeko eta hauen gaineko iritziak emateko aukera izango dute.

Eta albisteez gain, Elgoibarko agenda, mediateka eta BARREN astekaria ere izango dira atari digitalean. Lau atal hauekin irten da pla-

zara proiektua, baina Elkarteko arduradunek esan digutenez, urte berriarekin batera, zerbitzu eta atal berriak jarriko dituzte martxan.

Elgoibartarron topalekua izan nahi du elgoi barren.net-ek, eta teknologia berrietan euskarak duen presentzia indartzeko tresna egokia da.

Bi edo hiru **NOTIZIA** egunero




- Bi edo hiru notizia emango dira egunero (astelehenetik ostiralera).
- Notizien gainean komentarioak egiteko eta iritzia emateko aukera izango da.
- Eta, nahi izanez gero, albisteak e-postaz jasotzeko aukera ere badago.



AGENDA, norberak osatzeko aukerarekin




- Elgoibarren antolatu eta egiten denaren agenda izan nahi du elgoibarre.net-ek.
- Eta, garrantzitsuenak, ekintzak elkarte eta erakunde bakoitzak sartzeko aukera izango da.



MEDIATEKA, erretratu eta bideoak herritarren eskura




- Jaietako erretratuak izango dira ikusgai. Juan Mugerza krosekoak ere bai, Gabonetakoak, Inauterietakoak, ...
- Eta bideoak ere egongo dira: Kontzertuak, hitzaldiak, ...



BARREN astekaria, papera baino lehengo

- Ostiral goizetan BARREN astekaria ikusi eta irakurtzeko moduan egongo da.
- Aurrerantzean, buzoitik ez ezik elgoibarren.net-etik ere jaso ahalko da BARREN astekaria.
- Eta aurreko aleetan bilaketak egiteko aukera ere badago (Momentuz ale guztiak ez badaude ere, ahal den azkarren 15 urteotan argitaratutako ale guztiak jarriko dituzte atarian).





ASIER ORBEA

www.elgoiBARREN.net-eko editorea

«Internetek eskaintzen dituen aukera amaigabeek ilusioa sorrarazten didate»

Asier Orbea izango da elgoibarren.net-eko editorea. Papera alde batera laga eta Interneteko munduan jardungo du lanean aurrerantzean. Urduri eta ilusioz bustita sumatu dugu, Internetek eskaintzen dituen aukera amaigabeak ezagutu eta lantzeko irrikaz. Hori bai, gauza berri guztiakin gertatzen den bezala, badaki lana asko eta ondo egin beharko duela atari digitala elgoibartarren artean errotu dadin. Erronkari eusteko prest ikusi dugu.

Zer da elgoibarren.net atari digitala?

Elgoibarko orainkaria izatea da ekimen honen helburu nagusia. Notiziak gertatzen diren une berean eman nahi ditugu, eta, gainera, munduko edozein bazterretatik irakurtzeko moduan egongo da. Bestalde, elgoibartarren topalekua izatea ere nahi dugu. Atari honen bueltan komunitate berri bat osatu nahiko genuke.

BARREN astekaria osatzeko intentzioarekin prestatu al duzue elgoibarren.net?

Ez, bakoitzak bere ezaugarri eta helburu propioak dauzka. Papera gauza bat da eta Internet beste bat. BARREN geldoagoa da, estatikoagoa, asterokoa; elgoibarren.net-en ezaugarri nagusia, berriz, bat-batekotasuna da. Dinamikoa da, neanean unekoa emateko aukera eskaintzen du, eta baita hartu-emanetarako aukera paregabeak ere.

Baina, jendea ohituta al dago Internetetik notiziak jasotzera?

Oraindik ez, baina gero eta jende gehiago dabil Interneten. Ordenadoreak etxe gehienetan daude, eta hau aprobeztatu

egin behar dugu. Notiziak Internet bidez ere jasotzera ohitu nahi dugu jendea.

Norekin pentsatuta prestatu duzue proiektua?

Ordenadore bat daukaten guztiak izan ditugu kontutan. Akaso gazte jendeak ohitura gehiago izango du ordenadore hurreratzeko, baina hain gazteak ez direnek ere ordu mordo bat ematen dute ordenadore aurrean. Gainera, Elgoibartik kanpo bizi diren elgoibartarrak ere oso aintzat izan ditugu. Hauentzat oso tresna egokia izango da Elgoibarko berri izateko.

«Dagoeneko 900 bisita inguru izan ditu web guneak»

Zelako estimazioa izan du orain arte? Egin al duzue baloraziorik?

Oraindik goizegi da balorazio sakonik egiteko, baina badirudi jende asko orain-

dik ez dela ohartu elgoibarren.net hor dagoela. Batzuek esan digute oso ideia ona dela, eta dagoeneko 900 bisita pasa izan ditugu. Notiziak jasotzeko buletinera ere 60 lagun inguru harpidetu zaizkigu. Baina, hala ere, promozio lanarekin segitu egin beharko dugu.

Hasi baino ez zara egin medio berrian, baina zelako traza hartzen diozu?

Internet bidezko hedabide batek eskaintzen dituen aukera amaigabeek ilusioa sorrarazten didate. Izan ere, idatzizko eta ikus-entzunezko medioetako ezaugarriak bateratzen ditu. Gainera, irakurleen iritziak eta komentarioak jasotzeko asko motibatzen nau; nobedadea da niretzat.

Proiektua Elgoibarko Izarrarena da, baina laguntzaileak ere izan dituzue bueltan, ezta?

Bai, Udalaren babes ekonomikoa eta IMHren laguntza teknikoa jaso ditugu. Gainera, Aitor Lauzirikak eta Maite Rementeriak eskaini diguten laguntza ere nabarmendu nahi dut. Biek ere ordu mordo bat sartzen dihardute proiektu honek guk nahi duguna eman dezan.

EUSKAL JOKO ETA JOLASAK

Ikasleen arteko harremanak sendotzeko helburuarekin bildu ziren Plaza Handian



Euskal Soin proiektuaren baitan, hainbat euskal joko eta jolas antolatu ziren Plaza Handian, joan zen barixakuan. Pilar Ikastetxeko, BH Institutuko eta Debako Mendata ikastetxeko ikasleak izan ziren protagonista. Talde desberdinetan banatuta, nor baino nor aritu ziren sokatiran, lokotx biletan eta antzerako beste joko batzuetan. Ez da honelako ekintzak antolatzen diren lehenengo aldia, eta aurrerantzean ere, izango dira saio gehia-

go. Euskal Soin Jarduera proiektua duela 7 urte sortu zen, Euskal joko eta jolasen inguruko jaialdiak sustatu eta zabaltzeko asmoz. Kutxak antolatu eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen baitan dagoen Ikasiker taldeak sustaturiko jaialdi hauek Gipuzkoako herri gehienetan burutzen dira. Ikasleen arteko harremanak sortu eta sendotzea da ekimen honen helburu nagusienetarikoa. Bestalde, euskal kultura zabaldu eta ondo pasatzea ere, bilatzen da.

“Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak” antzerkia domekan, Herriko Antzokian

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, “Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak” antzerkia izango da domekan, hilaren 12an, Herriko Antzokian. Glu-Glu Produkzioak Txanogorritxo ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketa egin du. Txanogorritxoren amona gaixo dago. Amak aginduta basoaren beste aldera joan behar du neskatok, janariz betetako saskia amonari eramateko. Otsu maltzurra, ordea, neskatoka baino lehen iritsiko da amonaren etxera. Emanaldia arratsaldeko 16:30ean hasiko da.



[IKAS KONTUAK]

Elgoibar Ikastolaren webgunea martxan da

Elgoibar Ikastolak ere teknologia berrien mundura egin du salto. www.elgoibarkoikastola.net atari digitala jarri du martxan, leiho txiki bat irekitzeko helburuarekin: “gure eguneroko ahalegina kaleratu nahi dugu. Guraso eta langileek osatutako kooperatiba gara; herri ekimenetik sortu ginen, herriaren zerbitzura gaude eta gure hartzaileren beharrak asetu nahi ditugu”. Atariak atal desberdinak ditu: Informazio orokorra, Ikastolako proiektuen berri emateko atala, seme-alabei zuzendutakoa eta argazki eta bideoen atala, besteak beste.

Antzerki Txokoa eta Arrainekin lotan

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak bi ekitaldi antolatu ditu asteburu honetarako. Batetik, antzerki txokoa izango da bihar, Kultur Etxeko sotoan. Taupada Antzerki Taldearen eskutik, gaztetxoengan antzerkirako zaletasuna piztea izango da ekintza honen helburua. Goizeko 11:00etatik aurrera, animazio jolasak egin eta irudimenarekin jolasteko bilduko dira 4-8 urte bitarteko umeak. Bestalde, gaur gauean arrainekin egingo dute lo Donostiako aquariumean. Itsas mundua gaez ezagutzeko eta arrainez inguratuta lo egiteko aukera paregabea izango dute 9-12 urte bitarteko ikasleek.

Liburutegiko zozketa

Urriaren 24an “Liburutegiaren Eguna” izen zela-eta, Elgoibarko Udal Liburutegiak hainbat zozketa egin ditu: Marina Gabiolak “El Caserio” zuzelarako sarrera bat irabazi du eta Mainer Peralesi “Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak” antzerkirako sarrera bat tokatu zaio. Bestalde, Lore Lazpiur, Mari Cruz Belaustegi, Lide Baz, Iker Odria eta Ainhoa Pueratak liburu desberdinak jaso dituzte.

Chelsea futbol taldeak Juan Sol elgoibartarra fitxatu du begirale lanetarako

Londoneko Chelsea futbol talde ezagunak Juan Sol elgoibartarra fitxatu berri du. Abramovich errusiar aberatsaren taldeak Espainian izango duen ordezkaria izango da Sol. Bere lana, besteak beste, Chelsea-ra joateko moduko talentudun jokariarik aurkitzea izango da. Horretarako, Espainia guztitik bidaiatuko du. Valentzia futbol taldeko jokari eta erretiratu ostean urte luzetan delegatua izan zen Sol, harik eta 2002an dimisioa aurkeztu zuen arte. Solen bizitza eta karrera Valentziari estuki lotuta egon dira. 16 urterekin alde egin zuen Elgoibartik, che taldeak fitxatu baitzuen. Ilusioz beteta hartu du ardua berria.



PATRONATUAK KIROLDEGIAREN GESTIOAN 10 URTE BETE DITU Gipuzkoako merkeenak dira Olaizaga Kiroldegiko abonauak



Udal Plenoak Olaizaga Kiroldegiko 2007rako abonauak eta zerbitzuak %5ean igotzea erabaki bazuen ere, Olaizaga kiroldegiko abonuen prezioak Gipuzkoako merkeenak dira. Udal Kirol Patronatutik helarazi dizkiguten datuen arabera, "famili elgoibartar batek urteko abonuatik 163 euro ordaintzen dituen bitartean, Arrasaten 242 euro eta Zumaián 382 euro ordaindu behar dituzte". Oñatikoarekin batera Gipuzkoako merkeena izateaz gainera, trukean zerbitzu gehien eskaintzen dituen da Elgoibarko kiroldegia, "Mintxetako igerilekuak, muskulazio gela, atletismo pista eta Olaizagako hainbat zerbitzu erabili ditzakete abonatuak gehiago ordaindu beharrik gabe".

10 urte Patronatuaren gestiopean

1988. urtean inauguratu zen Olaizaga Kiroldegia. Lehen 8 urtetan enpresa pribatu batek kudeatu zuen eta 1996an Udalak, Kirol Patronatuaren bitartez, hartu zuen kiroldegia gestionatzeko ardua. 1.200 abonatu zeuden orduan eta 3.800 abonatu dira orain, 10 urtean 2.600 abonatu gehiago, alegia. "Patronatuak zerbitzu eta ekintza gehiago eskaintzeak ere zerikusia izan du abonatuaren kopurua gisa honetan igotzeko". Milatik gora lagunek (81 taldetan banatuta) parte hartzen dute Patronatuak eskaintzen dituen 16 aktibitateetan. Aerobic, spinning eta pilates dira jendeari gehien gustatzen zaizkion ikastaroak.

Olalsako 5 jokari deitu ditu Euskadiko Eskubaloiko selekzioak

Sanlo ETKk Euskal selekzioa hornitzen jarraitzen du. Oraingoan, Olalsa taldean ari diren 5 neska: Estibaliz Bilbao (atezaina); Aintzane Arizmendi, Ane Urain, Maitte Bollar eta Maria Ferreiro deitu ditu infantil mailako Euskadiko hautatzaileak. Lehen laurak iaz ere joan ziren selekzioarekin partidak jokatzen. Maria Ferreirorentzat, berriz, estreinako aldia izango da. Olalsa taldeari dagokionez, jokatutako hiru partidetatik hirurak irabazi dituzte orain arte eta bere taldeko lehen postuan dago. Horrelako emaitzekin gehiagotan ere bereganatuko dute hautatzailearen atentzioa.



TXIRRINDULARITZA

Iñigo Lariz Gipuzkoako selekzioarekin arituen 28 txirrindularietako bat izan da



Gipuzkoa-Moyua selekzioan probintziako txirrindularirik onenek parte hartu dute aurten. Denera 28 txirrindulari izan dira lasterketaren batean edo bestean korritu dutenak; 20 txirrindularik elite eta 23 urtez azpiko mailetan eta 8 txirrindulari junior mailan. Tartean izan da Iñigo Lariz elgoibartarra. Nazioarteko probetan parte hartzeaz gainera, gauza asko ikasi dute Gipuzkoako selekzioarekin joan diren hautatuek. Análisi antropometrikoak, esfortzu probak laborategian, Anoetako Velodromon probak, bizikleta gaineko postura egokiena bilatzeko saiakerak, e.a. Ez dauka alferrik selekzioak 40.000 euroko aurrekontua. Generazio berriek jada hasi dute denboraldi berria, joan zen astean pasa baitzuten mediku azterketa.

Gipuzkoako Igeri Liga Azkoitian hasi zen

Elgoibarko Igeriketa Taldeko 6 kidek parte hartu zuten Azkoitiko igerilekuan jokatzen Gipuzkoako Ligako lehen jardunaldian. Benjamin eta alebin mailako neska-mutilak aritu ziren igerian eta 50 eta 100 metro libretako lasterketetan parte hartu zuten. Danel Legorburu izan zen elgoibartarik bizkorrena 50 metrotako igeri proban, 52'36" denborari esker. Ane Espillak, berriz, 1:31'12"ko denbora ezarri zuen 100 metrotan. Aurten 33 neska-mutil daude Elgoibarko Igeriketa Taldean: 20 benjamin mailan, 6 alebin mailan eta 7 infantil mailan.



Wingsun ikastaroak Olaizaga Kiroldegian

Elgoibarko Wingsun Eskolak esgrima ikastaro berri bat antolatzen du. Sifu Javier Gutierrez maisuak emango du ikastaroa gaur, hilak 10, Olaizaga Kiroldegian (12:00). Espainia eta Portugalgo wingsun arduraduna eta munduko arte martzial maisurik onenetarikoak da Javier Gutierrez. Esgrima lezioetaz gain, defentsa personal

eta arma zuriekin egindako erasoetaz nola babestu irakatsiko ditu, besteak beste. Ikastaroa irekia da eta edonor joan daiteke ikastaroa zuzenean jarraituz. Bestalde, wing-tsunean hasi nahi izanez gero, Pello Plaza elgoibartarrak martitzen eta eguenean (19:00-21:30) ematen ditu klaseak Olaizaga Kiroldegian..

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Alaves 1 - Haundi 0 (3. maila)
Alleru 1 - Elgoibar 1 (1. erreg.)
Martutene 2 - Elgoibar 0 (Jub.)
Elgoibar 2 - Arrasate 1 (O. Inf.)
Elgoibar 0 - Zarautz 0 (Inf. Txiki)
Elgoibar 5 - Amaiak Bat 2 (Neskak)
Elgoibar 2 - Aloña Mendi 10 (Aleb.)

PILOTA

Lagunak (Atxotegi/Loio) 22 - Bergara 6 (2. Nag.)
Aretxabaleta 19 - Lagunak (Arrib./Agir) 22 (Kad.)

ESKUBALOIA

Olasa 24 - Aiala 12 (Inf. nesk.)
Legazpi 10 - H. Txariduna 19 (Senior nesk.)
Tecnomeca 27 - Egia 21 (Kad. mut.)
Pneumax 20 - Egia 34 (Jub. mut.)
Tecnifuelle 24 - Askartza 24 (Senior mut.)
Pulpo 11 - Aterpe 15 (Inf. nesk.)
Cometel 21 - Gasnalsa 14 (Jub. nesk.)
Ereintza 15 - Lojantzi 34 (Senior nesk.)
Zarautz 22 - IMH 18 (Kad. nesk.)

[AGENDA]

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapata, 11
16:00 Lojantzi - Urdaibai A (Senior nesk.)
17:30 Cometel - Bera-Bera (Jub. nesk.)
Domekia, 12
11:00 H. Txariduna - Aloña Mendi (Inf. mut.)
12:00 Aterpe - Jauja (Inf. nesk.)

ESKU PILOTA Ikastolan

Barixakua, 10
22:00 Lagunak - Oiarpe (Kad.)
22:45 Lagunak - Tartaloetxe (Jub.)

[IDARRAGA SARIAK]

IIDARRAGA KAFAK 10. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena **06/07**

Jokalaria	Puntuak
1. Iker Martinez	11
2. Navarrete	9
3. Amiano	7
4. Arruti	6
5. Morais	5

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ San Frantzisko kalean pisua salgai. 100m². Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. **607741678**

▶ Pisua salgai Altzolan. 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea. **619812448**

▶ Etxea salgai Erretxindin. Altzariek, 3 logela, egongela, jangela, komuna, 2 terraza eta trastelekua. Eguzkitsua. **680707639**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea,
komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Bizitzera sartzeko prest.
943 03 38 44
686 62 21 92

▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko. www.esnips.com/web/etxepolitza helbidean argazkiak. **660 884060**

▶ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela. egongela, sukaldea, komuna, trasteroa, berogailua. Berritua. **628904891**

▶ Etxea salgai erdialdean. 88m². Berritua, altzariek, ganbara. Kanpoaldera, eguzkitsua. 202.000 euro. **659 553 802**

ALOKAIRUA

▶ Pisua alokatzen da Azkoitin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua. Altzariek. 500 euro hilean. **650186229**

▶ Pisu berria alokatzen da. Igogailua, 2 logela, egongela eta sukaldea. **655711334**

▶ Mendaron, Azpilgoetan etxebizitza alokatzen dut. 3 logela, egongela, 2 komun, garajea, trasteroa. Dena kanpora. **943 013328 (Manoli)**
650953764 (Ramon)

▶ Bi logela hartuko nituzke alokairuan. **943 74 88 83**

[AUTOAK]

▶ Opel Kadett 1.6 diesel autoa salgai, motza. 500 euro.

620135958

▶ Kawasaki GPZ-500S motorra salgai. 91koa, ondo zaindua. Margotu berri. Asegurua 2007ko abuztura arte. ITV maiatzera arte.

616266212

(15:00etatik aurrera)

▶ Home Cinema JBL salgai. 5 bozgorailu+subflower. Urte bat, gutxi erabilia. Egurrezkoa, apalekin. Kalitate eta soinua bikaina.

616266212

(15:00etatik aurrera)

▶ Piaggio-Vespa Typhoon 50 RST motorra salgai. 2000. urtekoa. Egoera onean. Garajea lo egiten du. **943742268**

▶ Ford Fiesta 1.800 diesel salgai. 600 euro. **676889260**

▶ Kawasaki ZX6R Ninja motorra salgai. 3.600 euro. Motor berria, 8.000km. **690 857510**

▶ Ford Fiesta autoa salgai. Tuneatua.

664606102/617491332

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garajea alokatzen da San Roken, Instituto ondoan. Lehengo Antxustegi. 15m². **616266212**

(15:00etatik aurrera)

▶ Marradun garajea hartuko nuke alokairuan. hilean 60 euro ordaintzeko prest. **655728752**

▶ Lokala salgai Mendaron, Mendarozabal kalean.

635733150

▶ Lokal txikia alokatzen dut. 18 urte-
tik gorako neskontzat.

667838858

▶ Garajea alokatzen da San Roke 5ean. **943 74 11 61**

▶ Garaje itxia salgai Jausoron.

686 22 44 38

[BESTELAKOAK]

▶ Janari denda bateko altzari guztiak saltzen dira. **943743420**
(13:00-15:00)

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 ¤ eta alokairua 8 ¤. Autoak 8 ¤. Eta bestelakoak 5 ¤. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **639882004**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **943172896 (Mertxe)**

• Kamareroa lanerako prest. Esperientziaduna. Euskaraz egiten dut. **620049420**

• Mutila lanerako prest. **671289583**

• Mutila lanerako prest. **667348215**

• Geriatriako erizaintzako laguntzaile euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziaduna, informeak. **660511781/943742330**

Elena

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **620434550**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **638716987**

• Mutila elektrikari moduan lan egiteko prest. **638716987**

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **646 821 678**

(Lucia)

• Emakumea lanerako prest. **943 530130**

• Emakumea fresadora edo egiaztagailuan lan egiteko prest. Ikastaroak egin ditut IMHn. **639423493**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. **639423493**

• Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu... **671167050**

• Emakumea lanerako prest. **943531270**

• Emakumea lanerako prest. **686617930/943530130**

• Emakumea garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. **699609190**

• Neska lanerako prest. **630706181**

• Mutila lanerako prest. **680280791**

• Neska lanerako prest 10:00etatik 17:00etara. **665129877**

• Neska lanerako prest. **686617930/943530130**

• Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Orduka. **Jackeline**

943530803/676623843

• Ingeles klaseak ematen ditut, maila guztiak. 18 urtetik gorakoentzat, one to one, profidency. **606733850**

ESKAINITZA

• Jatetxerako kamarera behar da. **943 12 73 34**

• Harategian lan egiteko mutila behar da, euskalduna. **943742048**

• Kamareroa behar da. **943254366**

• DBHko ikasleak matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak hartuko lituzke. **943742199**

• Kamareroa behar da. Esperientziaduna. Kontratua eskaintzen da. **615723480**

• Mekanikaria behar da muntaia lanetarako. **699014349**

• Kamareroak behar dira asteburuetan martxa taberna lan egiteko. **678158015**

• Jubilatuentzako taberna lan egiteko kamareroak behar dira. Jardunaldi erdia, adinak ez du axola. **678158015**

ABISUAK

• Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut. Dona Karan markakoak, beltzak. **699 173635**

• Artzai txakur euskalduna oparitzen dut. 11 hilabetekoa, emea. **605771996 (Arantza)**

• Elgoibarko gasolindegian telefono mugikorra utzi du norbaitek. **943 74 43 22**

• Txakurra galdu da Elgoibar inguruan. Hispanier-breton ehiza txakurra. Txuria eta mantxa naranjak ditu. Lur, emea da. **607843027/652718479**

• Urezko hartz txiki bat galdu nuen urriaren 17an. Balore sentimentala dauka. **628564011**

• Iriondo Kirolak dendan bakero-dun kazadora bat utzi du norbaitek. **943740956**

• San Migel auzoko elizan beturreko batzuk aurkitu dira. **943743109**

[ZORIONAK]



► Zorionak **Anel**
Igandean, 11 urte egin zenituelako. Muxu haundi bat, ikastolako 6. mailako nesken partez.



► Zorionak **Unai Sanchez!**
Hilaren 13an, 3 urte beteko dituzulako. Familia guztia-
ren partez.



► Zorionak **Haritz Azpiroz!**
Azaroaren 14an, 5 urte egingo dituzulako. Guraso, Nagore eta Julen eta bereziki, amama Paularen partez.



► Zorionak **Ane Kortaberria!**
Azaroaren 15ean, 5 urte egingo dituelako. Familiakoen partez.
► Zorionak **Izari!**



Gaur, 2 urte bete dituzulako. Aitxitxa Modesto eta amama Maria Luisaren partez.
► Zorionak **Anel**



Pasa den asteazkenean, 2 urte bete zenituelako. Etxekoan eta bereziki, Aritz eta Maialenen partez.



► Zorionak **Patril**
Azaroak 6an, urteak egin zenituelako. Muxu pila bat! Etxekoan eta kuadrilakoan partez. Aurreko zapatuan bezain ondo pasa dezazula bihar ere.



► Zorionak **Alejandro!**
Ondo igaro genuen zure urtebetetze egunean. Muxuak ikastolako laguntxoaren partez.



► Zorionak **Txulit**
Azken denboraldi honetan kriston lasterketa egin duzulako, 1 eta 2. postuak lortuz. Jarraitu horrela, zure jarraitzaile guztien partetik.



gazte
informazioa

BEKAK HISTORIA

Goikoetxea Kultur Elkartea Euskal Udalekuak Urdirotzeko historia jasotzeko ikerketa beka bat antolatu du. Lana euskaraz egingo da eta liburu formatuan aurkeztu beharko da. Epea azaroaren 30a

EUSKAL LITERATURA

Il. Tene Mujika Beka. Debako Udala-Elkar Argitaletxeak Euskal Herriko historia hurbilari buruz idazteko beka antolatu du honen ezagutza zabaldu eta euskal kultura aberasteko asmoz. Epea: azaroaren 30a

GRADUONDOKOA

Lehendakaritza Ministerioak Graduondoko prestakuntzarako beka ateratu ondo arloetan: Zuzenbide-dokumentazioko eta lege-oinarrien produktzioko teknikak, publizitateko teknikak, marketing, lege testuak, administrazioko kudeaketa publikoaren teknikak. Epea: azaroaren 22a

EKINTZAK SOLIDARITZA

Donostiako Udala. Adierazpen honek irauten dituen hilabeteetan, urritik abendura, ekintza ugari izango dira. Ekintza: hitzaldiak, erakusketak, musika-emanaldiak, proiektzioak, antzezpenak, tailerrak, lehiaketak eta bestelako ekintzak.

KONTZERTUA

La Caja de Pandoraren kontzertua I lumben izango da, azaroaren 10an, 21:00etan. Gonbidapenak www.gaztekutxa.net webgunean lortu daitezke.

IKASTAROAK ARGAZKIGINTZA

Ikatzka Argazkilaria Elkartea. Argazkigintzari buruzko ikastaroa Legazpin, azaroaren 13tik 25a arte. Epea: Azaroak 10

BILTEGIZAIN

Eroak Sartu-Lanbide. Euskal Enplegu Zerbitzua. Biltegizain ikastaroa Donostian. 2007ko urtarrilaren 29tik apirilaren 20a

AISTALDIKO ZUZENDARIA

Urtxitxa Astialdiko Eskola. Ikastaroa larunbatetan burutuko da 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30etara. Epea: Azaroaren 10a

LEHIAKETAK KARTELA

Irungo Udala. Irungo Inauteriak iragartzeko kartel Lehiaketa 2007. Teknika libre izango da. Epea: Urtarrilaren 10a

LANA

ADMINISTRAZIO OROKORRA

Anoetako Udala. Administrazio orokorreko teknikaria. Zuzenbidean, Politika Zientzietan, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan, Merkataritza Intendentzia lizentziatura izatea eskatzen da. Epea: Azaroaren 17a

LAN POLTSA

Gipuzkoa Foru Aldundia. Gipuzkoako foru aldundian errenta kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien lan poltsa. Epea: Azaroaren 27a

GIZARTE LANGILEA

Osakidetza. 11 gizarte langile lanpostu. Epea: Azaroaren 22a

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

943 741 461



Asteartetik ostiralera

16:00-19:00



[OKINDEGIA]



12 domekia DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ	
10 Bidasolo	
11 Etxeberria (Santa Ana)	
12 Etxeberria (Santa Ana)	
13 Fernandez	
14 Yudego	
15 Zabaleta	
16 Etxeberria (Errosario)	
17 Ibañez	

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK	
IBAÑEZ	
Rekalde, 1 Soraluze.	
Tel: 943 75 16 38	
FERNANDEZ	
Herriko enparantza 4, Garagarza.	
Tel: 943 75 61 42	
ZABALETA	
Kalebarren, 9 Soraluze.	
Tel: 943 75 13 84	



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekarria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kirolegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emailak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
UDALA		Postetxea	943 74 15 47
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	Gazte Informazioa	943 74 14 61
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	KZ gunea	943 74 88 28
Hirigintza	943 74 43 84	ADINEKOEN ETXEAK	
Epaitegia	943 74 16 30	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Hazierna	943 74 44 14	Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	IKASTETXEAK	
Udaletxea	943 74 10 50	Haur Eskola	943 74 21 41
Udaltzaingoa	943 74 13 94	HHI (EPA)	943 74 08 80
Debemen	943 74 40 67	Herr Eskola	943 74 08 79
GARRAIOAK		I.M.H.	943 74 41 32
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
PESA (Eibar)	902 10 12 10	•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Taxi geltokia	943 74 08 98	Ikastola	943 74 44 41
Bizkaibus	902 222 265	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA (UZTAILA)
Astegunak:
 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00,
 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00,
 20:45
Larunbatak:
 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10,
 18:45, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00,
 20:45
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR (UZTAILA)
Astegunak:
 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30,
 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak:
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak:
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
 ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak:
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
 21:55.
Asteburu eta jaiegunak:
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[10 BARIXAKUA]

19:00 ELGOIBARKO EZKER BATUA/BERDEAK ALDERDIAREN LOKAL BERRIAREN INAUGURAZIOA

Errosario kaleko 6. zenbakian
 Javier Madrazo EB/Berdeak
 alderdiko Koordinatzaile Nagusiak
 inauguratuko du

19:00 ERREPUBLIKAREN INGURUKO ERAKUSKETA

Ezker Batua/Berdeak alderdiaren
 egoitza berrian
 Azaroaren 17ra arte
 Ordutegia: 18:00-20:00

22:00 "EL CASERIO" ZARZUELA

Masa Coral del Ensanche taldea
 Herriko Antzokian

SINOPSISIAK

«Vuelo 93»



[11 ZAPATUA]

11:00 ANTZERKI TXOKOA

Antzerki tailerra Taupada antzerki taldearen eskutik
HH 4-5eko eta LH 1-2ko haurrentzat
Kultur Etxeko sotoan

12:00 "FESTA DO MAGOSTO"

Gaztainak eta Galiziako jaki tipikoak banatuko dira
Nafarroa plazan
Antolatzailea: Galiza Etxea

[12 DOMEKIA]

12:00 GAIKO ETA EZINDUEN ELKARKIDETZA

Antolatzailea: San Bartolome Parrokiako Osasun Pastoral

16:30 TXANO GORRITXO ETA MARRUBI ZAPOREKO GAZTAINAK IKUSKIZUNA

Taldea: Glu-glu produkzioak
Herriko Antzokian

[17 BARIXAKUA]

22:00 ZINE FORUM-A

Filmea: "Orgullo y Prejuicio"
Dinamizatzailea: Eskame Larrinaga
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea E.T.

22:15 ARIMA BELTZA TALDEAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Vuelo 93»

11, zapatua: 19:30-22:15

12, domekia: 19:30-22:15

13, astelehena: 21:30

«Honor de Caballeria» (Z.K.)

16, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Infiltrados»

10, barixakua: 19:30-22:15

11, zapatua: 17:00-19:30-22:15

12, domekia: 17:00-19:30-22:15

13, astelehena: 19:30-22:15

14, martitena: 19:30-22:15

15, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Honor de Caballeria» (Z.K.)

Zuzendaria: Paul Greengrass.

Antzezleak: Becky London, Cheyenne Jackson.

Ameriketako Estatu Batuetan inoiz egin den atentatu terroristarik handienean, 2001eko irailaren 11n, laugarren hegazkin bat ere bahitu zuten terroristek. Filma honek United Airlines konpainiako 93. hegazkin barruan gertatu zena azaltzen ditu, aireeratzen den unetik. Bidaiarien beldurrak hartu zituzten erabaki ausartak agerian lantzen ditu. 40 minutu eskaseta ulertu behar du zuten bidaiariek gertatzen ari zena, mundua ildatzen ari zela.



Zuzendaria: Albert Serra.

Antzezleak: Lluís Carbó, Lluís Serrat.

Cervantesen lanik ezagunenean, Quijotean, oinarrituta dago filma, adaptazio erabat librea eta personala egin du, ordea, Albert Serra zuzendariak. Don Quijote eta Sancho noraezean abentura bila bidaiatzen ari dira. Bidean hainbat gairi buruz berba egin eta hausnartzeko astia dute; espirituari dagozkion gaiak, zaldunen gainekoak, lurtiaragoak... mundua konpontzen saiatzen diren bitartean, bien arteko adiskidetasuna poliki-poliki sendotuko da.

Atzera hegira



1964 .urteko erretratu zahar hau **Miguel Anjel Tercero**k laga digu. 1963-64 ikasturtea amaitu zutenean ateratako argazkia da. 12-13 urte bitarteko mutiko hauek Pedro Muguruzako ikastetxean ikasten zuten. Urte honetan Lehen Hezkuntzako ikasketak amaitu zituzten eta gelako gehienak Eskola Profesionalera (gaur egungo Mekanika) joan ziren. Gogora ditzagun nortzuk diren mutiko hauek.

Zutik, ezkerretik eskumara: **Cristobal Aribillaga, Anjel Lopez, Manuel Fernandez, Jose Osoro, Juan Rodriguez, Nikasio Rubio, Jose Luis de Blas, Don Antonio (irakaslea), Felipe Rodriguez, Felix Santos, Miguel A. Garcia, Jose Manuel Martin (), Isicio Cuevas, Miguel Anjel Tercero.**

Belauniko, ezkerretik eskumara: **Santos Diez, Agustin Prado, Francisco Lopez (), Antonio Martin, Julian Lopez, Jose Ramon Salegi, Rafael Galarraga, Juan Miguel Gil, Vicente Polo, Fernando Sarabia, Anjel Rodriguez, Manuel Membrillera, Jose M^a Altuna ().**

Eserita, ezkerretik eskumara: **Jesus Irazabal, Manuel Acosta, Jose Manuel Tobajas, Santos Diez de Pinilla, Carlos Arias, Fernando Azpiazu, Iñaki Arizmendi, Jose A. Monje, Luis Dacosta, Vicente Santos, Francisco Javier Irazabal, Simon Anjel Osoro.**



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinikia

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

elgoibar

www.residencialgeminis.com

48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak
117 garaje eta 76 trasteleku



259.000 €-tik
garaje eta trasteleku barne
(43.093.974 ptas.)



Espacios de Bienestar



Tfno.: 943 74 80 92

Argibideak: INFOLUR C/ Antonio Arrillaga, 1 behea. 20370 Elgoibar. info@infolur.net - www.infolur.net

PRIMA BEBADA

Mundurako atzak

Azaroak 17, OSTIRALA
Gaueko 22:15ean
Herriko Antzokian



Elgoibarko Udala



Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzak



Sarrerak aurrez salduko dira Kultur Etxean (Euskara Sailean goizez eta Gazte Informazio Bulegoan aratsaldez). Salneurria: 5 €



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

Antonio Markez
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrot
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa:943 53 18 05

Zubizarreta instalazioak
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Proiektu eta erreformak

Bigara Erreformak
San Frantzisko, 11-5
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96
Estudios Arrillaga
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

Ipintza
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com